

JAKIN BEHAR DUZUN GUZTIA SARAKO LEZEAK BISITATU AITZIN !

DENBORAZ KANPOKO BISITA, INGURUNE NATURALA BABESTU BATEAN

Larrun pean eta Donibane Lohizunetik 15 kilometrotan.

Lurraren sakonetan egindako 45 minutuko bisita gidatu baten bidez, ezagutu urak zizelkatu duen bitxikeri geologikoak eta sentitu gizakiak naturarekin batu dituen milaka urteko lotura hori !

SARBIDEA

Autoz : A63 Autobidetik, Baiona, Miarritze edo Donibane Lohizuneko irteera hartu eta SARA eta SARAKO LEZEAK ezaupideak segitu.

Autobusez : Donibane Lohizunetik Txik-Txak-ekin.

INFORMAZIO PRAKTIKOAK:

- Bisitari kopurua mugatua dela eta, **aintzineko erreserbak abantailatzen ditugu.**
- 3 doako aparkalekuak badaude auto eta autokarabanentzako.
- Lezearen barnean ez dira onartzen : animaliak, haur karrosak, argazki eta bideo ateratzea. Ostatuan ere ez dira animaliak onartzen.
- Bertan ostatu bat (urte osoan idekia), jatetxe bat (udan idekia), piknikatzeko xokoa eta opari saltegi bat atxemanen dituzu.
- Ez baldin baduzu bisita euskaraz erreserbatzen ahal, urrik den itzulpen audiodia bat proposatzen dautzugu (telefonoan deskargatuz).
- Bisita aterpean pasatzen da, eta urtean zehar 14° dira lezearen sakonean.

SARRERAK AINTZINETIK EROSI

Erreserba aintzinetik egitea **baitezpadakoa da**



INTERNETEN BIDEZ, Sarako lezeen webgunetik :

<https://reservation.grottesdesare.fr>

edo Euskal Turismo Bulegoak* batzen dituen **TURISMO BULEGOETATIK.**



NOLA EGIN ?

1. Erreserbatu linean eta hautatu zure bisitaren eguna eta ordua.
2. Inprimatu zure e-txartela edo gorde zure telefonoan/tabletan.
3. Bisitaren egunean: aurkeztu zaituz gure harrerara, bisita abiatu baino 20 minutu lehenago (idekitze tenoretan), zure e-txartelarekin.

SARAKO LEZEAK, HAUXE DIRA ERE:



Naturgune babestua eta egokitua, non parke megalitikoak, piknik gunea eta kafetegi bat atxemen dituzu.



Soinuetan eta argietan egiten den bisita gidatua gure gidari errabiatu batekin !



Zaindua den kobazulo bat : barnean animaliak eta argazki ateratzea ez dira onartuak, gunearen flora eta faunari nahasmenduak gultzitzeko.

2024ko IDEKITZE ORDUTEGIA:

- **Otsailaren 12tik martxoaren 17ra:**
Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 17:00etara larunbatetik igandera, 13:00etatik 17:00etara.
- **Martxoaren 18tik azaroaren 3ra:**
Egunero 10:00etatik 18:00etara.
- **Azaroaren 4tik 2025eko urtarrilaren 5era:**
Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 17:00etara Larunbatetik igandera 13:00etatik 17:00etara.

Hetsia abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean.

2024ko PREZIOAK:

- **Heldua: 10€**
- **Haurra** (5-13 urte barne) **6€**
- **Nerabe** (14-17 urte barne) eta **Ikasle: 8,5€**
- **Ahalmen urriko pertsona: 6,5€** (aurrez kontsultatu otoi)
- **Familia** (2 heldu et 3 haur): **32€**

Prezio murriztuak eta bisita konbinatuak taldeentzat (15 lagunetik goiti) badira. Xehetasunak gure webgunean.

